

Galdera

Nola eman euskaraz *visualizar* terminoa, irakurketa-estrategiak lantzen ari garela, hau da, irakurtzen ari garenaren irudi mentalak sortzea adierazi nahi dugunean? Egokia da 'irudikatu'?

Erantzuna

Bai, 'irudikatu' aditzak taxuz islatzen du *visualizar* terminoaren adiera hori, gure iritzian.

1/ Euskaltzaindiaren Hiztegiak honelaxe jasotzen du 'irudikatu' aditzaren sarreran, bigarren adieran:

irudikatu, irudika, irudikatzen

1 du ad. Zerbait irudi baten bidez adierazi. Ik. irudiztatu. *Jainkoa ez da gizonak irudikatzen duen bezalakoa. Agertokiak egongela bat irudikatzen du. Bizidunak gurutze batez irudikatuko ditugu, eta bizigabeak gezi batez. Inpresionismoa argiaren eta gauzen alderdi aldakorrek marra eta ukitu arinez irudikatzen saiatzen da.*

2 du ad. Iruditu, irudimenean eratu edo sortu. *Andregaiaren gurasoak ez ziren irudikatu nituen bezalakoak.*

2/ Halaber, Elhuyar Hiztegiak bi adiera horiek jasotzen ditu:

irudikatu

1 du ad. representar, simbolizar

bizidunak gurutze batez irudikatuko ditugu eta bizigabeak gezi batez:
representaremos los animados con una cruz y los inanimados con una flecha.

2 du ad. imaginar, concebir

nire andregaiaren gurasoak ez dira nik irudikatu nituen bezalakoak:
los padres de mi novia no son como me los imaginé.